

Ipuintxo bat gauero II



ALAI
↖ ↗



IPOTX JAUZKARIA

Orain dela denbora asko,
urruneko herrialde batean,
errotari batek esan zion erregeari:

—Maiestate, nire alaba oso
ederra da, eta gainera, lastoa irun
eta urre bihurtzeko dohaina du.



—Dohain izugarria da hori!
—onartu zuen erregeak—. Bihar bertan etor dadila jauregira, eta ikusiko dut zer egin.

Neskatxa erregearengana eramán zutenean, hark gela batean sartu zuen; lastoa, aulki




bat eta goru bat, ez zegoen
besterik.

—Bihar goizerako ez baduzu
lasto hau guztia urre bihurtzen,
hil egingo zara —esan zion
erregeak.

Erregeak giltzaz itxi zuen, eta
neskatxa negarrez hasi zen: nola





bihurtuko zuen urre lasto hura
guztia? Iruten ere ez zekien-eta!

Baina, bat-batean, atea zabaldu
eta iratxo bat agertu zen:

—Zergatik ari zara negarrez?
—galdetu zion.

—Ai ene! —neskatxak
negarrez—. Eguna argitu baino
lehen, lasto hau guztia irun eta
urre bihurtu behar dut; bestela,
hil egingo naiz.

—Zer emango didazu
egunsentia baino lehen iruten
badut? —galdetu zion iratxoak.

—Nire lepokoa emango dizut
—eskaini zion neskatzak.

